

2020KO EKAINA  
www.begiko.com

Irakurtzea plan bikaina da!

begiko

3. alea





# Nire obra handia

Zure ipuin-liburua egin ahal izango duzu. Jarraian azalduko dizugu nola.

1. Ipuinek hiru zati ezberdin izan beharko dituzte:  
**Lehenengoan** kontakizuneko pertsonaiak, ekintza eta lekuak deskribatu beharko dituzu.  
**Bigarrena** ipuineko korapiloa izango da, kontakizua zaildu eta zerbait interesgarria gertatzen den zatia.  
**Hirugarrena** bukaera izango da, korapiloko gertaerak konponduko diren unea.
2. Ez bazaizu ideiarik burura etortzen, hemen dituzu iradokizun batzuk, inspiratzeko:
  - **Estralurtar** bat aurkitzen dute balkoian.
  - Ohearen azkian **mundu magiko** eta ezezagun baterako ataria dago.
  - **Robot** xurgagailu batek adimen artifizialaren bidez hitz egiten du eta haren jabearen lagun bilakatzen da.
  - **Denboran bidaiatzeko** tresna bat jasotzen dute oinordetzan.
  - Entsalada poltsa batean munduaren eta naturaren sekretuak ezagutzen dituen **pertsonaia** misterioitsu bat topatzen dute.

1

Zure ipuinak bukatu dituzunean,  
liburu batean bil ditzakezu guztiak.  
Begiratu ondoko orrialdean  
emango dizugun ideiari.

**Katuek ere irakurri  
nahi izango dute  
zure liburua!**






# Kutxa liburua

Irudikatzen duzu kutxa bat ireki eta izatez liburu bat dela ikustea? Horrelako bat nahi baduzu, adi jarraian kontatuko dizugunari.


## Beharrezko materialak:

- Kutxarako 2 folio
- Guraizeak edo artaziak
- Kola edo lekeda
- Koloretako errotulagailu eta margoak
- Liburuaren orrietarako folioak


1. Kutxa egiteko **tolestu** folioak marrazkietako argibideetan bezala.
2. **Desegin** eta **apaindu** kutxa berriz eraiki eta itsatsi baino lehen.



3. **Sortu** akordeoi bat kutxaren tamainako orriekin.
4. **Idatzi** eta marraztu ipuina sortu duzun akordeoian.




5. **Itsatsi** azken orria kutxa barnean. Lehenengoan azala ikusi behar da.



## Zure liburua

kutxan gordeta izango duzu  
altxorrik baliotsuena bezala.





# Korapilatutako munstroa

Zure munstroa sortu ahal izango duzu, nahiago duzun lekuan jartzeko.

## Beharrezko materialak:

- Artilea edo hari lodia
- Kola edo lekeda
- Poliestirenozko erretilua (jakiak saltzeko erabiltzen dena)
- Bolaluma
- Eskulanetarako begiak

1. **Nahastu** ontzi batean ura eta kola (kola uraren bikoitza izan behar da).
2. **Pasa** haria edo artilea nahasketatik eta jarri poliespanezko erretiluaren gainean.
3. **Eman** munstroari zuk nahi duzun itxura.
4. Orain begiak egin behar dituzu. **Itsatsi** itzazu edo egin itzazu paperean bi zirkulu moztuta eta puntu lodi bat margotuta.
5. **Utzi lehortzen** eta askatu erretilutik.

3

Badakizu non jarriko duzun? Hona hemen ideia batzuk:



Zure logelako atean



Opari batean




Lorontzi batean txorimaloa bezala



Zure motxilan

Otu al zaizu leku hoberik?  
Ziur baietz!





# Mezua botilan


Ez dira soilik naufragoak botiletan mezuak idazten dituztenak. Idatzi al duzu inoiz horrelakorik? Ea ideia hau gustatzen zaizun.

## Beharrezko materiala:

- Paper begetala
- Kola edo lekeda
- Folioa eta mezuak idazteko paper fina
- Bolaluma


1. Egin folio batean botila forma duen **txantiloia**. Botila simetrikoa marrazteko, folioa tolestu dezakezu eta botila erdia marraztu. Errazagoa da horrela!
2. **Jarri** txantiloia paper begetalaren gainean edo laberako paper gainean eta marraztu berriz silueta arkatz batekin. Errepikatu prozesua beste bat egiteko.

3. **Moztu** ertzetik.



4. **Itsatsi** bi botilak ertzetik, botilaren lepoa itsatsi gabe utzita, mezua sartu ahal izateko.

5. Idatzi mezua, **kiribildu** eta sartu paperezko botilaren barruan.



**Bidali zure mezuak sofako naufragoa bazina bezala.**





# Koko eta txoko, gozamen ahoko

Kokozko eta txokolatezko galleta errazak. Zeren zain zaude?

## Osagaiak:

- 250 gramo koko xehetu
- 250 gramo esne kondentsatu
- 50 gramo txokolate

1. **Berotu** labea 200 gradutan.
2. **Nahastu** esne kondentsatua eta koko xehetua.
3. **Egin** bola txikiak eta jarri laberako paperaren gainean, erretilu batean.
4. **Xehetu** edo zatitu txokolatea eta bota galleten gainean.
5. **Laberatu** 10 minutuz 150 gradutan. Ez galdu arreta, oso erraz erretzen dira eta!
6. Hozten utzi eta **zerbitzatu**.

5

**Gosarirako,  
askarirako...  
beti gozo!**





Egilea

**Inés Burgos**

Azaleko ilustrazioa

**Julia Ortega**

***Monstruos de minuto y medio***

(Loqueleo, 2020)

liburutik